

DB

Behar Hitzza
Leioa



Behargintza Leioa



Behargintza Leioa Enplegu eta Tokiko Garapenerako Zentroa

Mendibil kalea, 3 . 48940 - Leioa
Tfnoa.: 94 400 41 95 | Faxe: 94 402 25 41
www.behargintzaleioa.net
behargintza@leioa.net

 @LeioaBG  Leioako Behargintza

SAILAK:

Orientazioa
behargintza.orientazioa@leioa.net

Prestakuntza
behargintza.enplegua@leioa.net

Enpresa
behargintza.enpresa@leioa.net

Ekintzailtza
behargintza.ekintzaile@leioa.net

Mari Pepa eta Arlote

Aurten ere, pertsonaiarik ospetsuenak, Mari Pepa eta Arlote, udalerriko familia behartsuenei laguntzea erabaki dute, Caritas Leioaren bitartez. Arrazoi horregatik, gure dendetara hurbildu dira beren kikara solidarioak eskaintzen. Lau euroan eros daitezke kikarok saltoki desberdinetan.

Dena den, gure inguruko artistak inplikatzan saiatu ziren, beren pertsonaietan inspiratuta, obra desberdinak sortzeko, artea eta solidaritatea uztartuz. Obra horiek abenduaren 10eko ongintzazko afarian zozkatu ziren. Tarte ederra igaro genuen lagun eta laguntzaile artean.



Carmen Palomero, K-Toño Frade, Jone Saitua, Beren Beregi eta Jonatan Arnaiz izan ziren parte hartu zuten artistak. Ondoko argazkian, hain zuzen ere, Carmen ikus dezakegu bere lana sarituari entregatzen.

Gogoratzen dizuegu urtarrilaren 5era arte duzuela kikara solidarioak erosteko, kontziente izanik horiek erosita gehien behar dutenei lagunduko diegula.

Hemendik, eskerrik asko kanpainara batu diren 20 merkatariei, aurten ere, solidaritatea zabaltzen laguntzen ari direlako. MILA ESKER DENOI!



Ekintzailletza Soziala



Ekintzailletza soziala 90eko hamarkadan sortu zen, eta Boschee, Henton, Melville edo Walesh bezalako adituek eginiko azterlanetan du jatorria. Harrezkero, ekintzailletza soziala deitzen diogu negozio sozial bihurtu daitezkeen negozio aukerei; hots, enpresa-jarduera eta GKEen ezaugarriak konbinatzen dituzten eta pertsonen bizitza hobetzea helburu duten negozio aukerez ari gara.

Up Euskadi web orrien azaltzen den bezala, normalean, ekintzailletza soziala pertsona batek kezka batetik abiatuta hartzen dituen erabakien ondorioa da, zeinak bere kabuz edo talde bat sortuz produktuak nahiz zerbitzuak identifikatzen eta garatzen baititu premia edo arazo sozialak estaliz eta konponduz. Mota horretako ekimenek ez dute komertzialak izan beharrik edo ez dute aberastasuna sortu beharrik, baina guztiek dute ezaugarri komun bat: iraunkortasun ekonomikoa bilatzen dute, ahalegin ekintzailearen emaitza behar bezala garatu dadin denboran zehar.

Mota honetako pertsonak badute beste ezaugarri komun bat: berrikuntzarako gaitasuna eta ideia eraldatzaileak aplikatzeko erraztasuna. Bi trebezia horiek baliatuz, gizartean zuzeneko eragina duten helburuetara bideratzen dute ekimena, efektu zuzena lortuz aukeratutako kolektibo edo biztanleria taldearen gainean. "Partekatzea" da ekintzaile sozialek ongien ezagutzen duten aditzetako bat, eta aditz hori beste pertsona batzuekin jokatzeko dute, beren ezagutza, esperientzia eta baliabideak eskainiz beste ekintzaile sozial batzuek aprobeitatu ditzaten, bai lurralde berean edo baita ere beste eskualde eta herrialde batzuetan, ikusmenak, talentuak eta elkartasunak ez dutelako mugarik.

Prestakuntza

BEHARGINTZA LEIOAREN PRESTAKUNTZA ESKAINTZA BERRIA

Beste behin ere, ekitaldiaren aldaketarekin batera, Behargintza Leioak udalerrian langabezia daudenen enplegarritasuna hobetzera zuzenduta dagoen bere prestakuntza eskaintza eguneratu du. Aurtengo prestakuntza eskaintzak erantzun egiten diete gure inguruan antzemandako beharrezko erabilzaileek egindako eskaerei. .

Pertsonekin lotuta, beharrezko ikusten dugu **OINARRIZKO INFORMATIKAREN** gaineko prestakuntza ematen jarraitzea, zulo digitalari aurre egiteko. Hortaz, hilero, eta Leioako KZ Gunearen laguntzarekin, 30 orduko ikastaroa emango dugu. Halaber, garrantzitsu ikusten dugu Lanbideren Orientabide ataletik gaitasun eta konfiantzaren hobekuntzarekin lanean jarraitzea, langabetuek egunero enplegua bilatzeko lanari hobeto aurre egin diezaioten, eta horregatik, hilero, **ENPLEGU TAILER** desberdinak antolatu ditugu, bai lan bilaketa planifikatu eta antolatzeko, baita hautaketa prozesu eta lan elkarrizketekin lotutako gaitasunak entrenatzeko ere.

Enpresekin lotuta, eta **BEHARGINTZA LEIOAKO LANERATZE AGENTZIAN** kudeatzen ditugun lan eskaintzen ildotik, iraupen luzeagoko 3 ikastaro eskainiko ditugu lan gaitasunen egiaztapena errazteko. Adituek emandako prestakuntza eta gure inguruko enpresetan praktikak egiteko aukera

- **MERKATARITZA ESTRATEGIA ETA MARKETINA**, 150 ordukoa eta 200 orduko praktikekin. Enplegarritasuna altua duen merkataritza eta zerbitzuen sektoreari erantzuna emateko.
- **OFIMATIKA (UC0233_2)**, 190 ordukoa eta 120 orduko praktikekin. Administrazio eta langileen kudeaketa gaiekin lotutako profesionaltasun ziurtagiri askotan agertzen den gaitasun unitatea da hau.
- **BILTEGIKO JARDUERA LAGUNGARRIEN** ziurtagiri osoa (COML0110), 210 ordukoa, orga jasotzailea erabiltzeko 50 orduko prestakuntzarekin eta 40 orduko praktikekin.

PRESTAKUNTZA PROPOSAMENAK

urtarrila-ekaina // 2016

BEHARGINTZA LEIOA
Mendibil, 3
48940 LEIOA (Bizkaia)
Tel: 94 400 41 95
behargintza@leioa.net
www.behargintzaleioa.net

Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO

BEHARGINTZA LEIOA

f t
-N JARRAITUZ



Orientazioa

HELBURU PROFESIONALA

Lan-bilaketa aktiboaren prozesua kontsumo-merkatuan produktu bat saltzearen antzekoa da. Zeure burua enpresa bati eskaintzen ari zarela pentsatu behar duzu. “Salmenta” egiteko, oso garrantzitsua da publizitate-kanpaina on bat egitea. Horretarako, zer ezaugarri dituzun jakin beharko duzu aurrez: norberaren ezagutza.

Zer egin nahi dut?

Lana bilatzen hasi aurretik, autoebaluazio bat egin beharko genuke, bai eta azterketa pertsonal nahiz profesional bat ere, hasierako galderari erantzuten laguntzeko. Gure gaitasunak, abileziak, trebetasunak, prestasuna eta abar ezagutzeko gai izan behar dugu; hartara, geure burua ezagutuko dugu, eta zehaztuko dugu zer onartzeko prest gauden eta zeri egingo geniokeen uko eta zergatik. Lana zer lanpostutan bilatu nahi dugun zehazten lagunduko digu horrek.



Agenda

Urtarrila:

Ikastaroa: Merkataritza elektronikoa - Onlineko denda

2016/01/08: Barakaldo (Bizkaia)

Ikastaroa: METAPOSTA: Soldata-orriak, frogagiriak, polizak ... jaso eta bildu zure negozioarentzat

2016/14/01: Getxo (Bizkaia)

Ikastaroa: Egokitu zure enpresa eta zure weba DBLO eta IGMEZL legetara (I)

2016/11/01: Bilbo (Bizkaia)



Dirulaguntzak

AGINDUA, 2015eko abenduaren 16koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena; honen bidez, urriaren 27ko 202/2015 Dekretuan aurreikusitako diru-laguntzen deialdia aurkezten da, 2016ko ekitaldirako. Dekretu horrek ingurumena babestera bideratutako inbertsioak egiteko enpresei ematen zaizkien diru-laguntzak arautzen ditu.

[Acceso al Boletín](#)

Bizkaiko Foru Aldundiaren 178/2015 FORU DEKRETUA, abenduaren 1ekoa. Honen bidez, oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira, 2016ko ekitaldian euskara informazio eta komunikazioaren teknologietan egon dadin ekoizkinak gertatzen dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko merkataritza-sozietateei, kooperatiba-sozietateei, banakako enpresaburuei eta profesionaleri diru-laguntzak emateko. [Acceso al Boletín](#)

Josu Vega

Gaur, enpresa bat aurkeztu beharrean, Josu Vega ezagutuko dugu. Josu Tokiko Enplegu Plan bitartez kontratatuta dago udaleko establezimenduetan komertzio elektronikoko plataformak ezartzeko. Programa honen asmoa udalerriko komertzioen on-line salmentak bultzatzea da.

Nolako izan da Behargintzan lan egiten hasteko prozesua?

Lehenik, Leioako Udaletik deitu zidaten, Lanbideren bitartez, Tokiko Enplegu Plan barruko hautaketa prozesu baterako, eta azkenean, informatika garatzaile lanposturako hautatu ninduten, udalerriko merkataritza Behargintzak zuzendutako e-commerce programa bat ezartzeko.

Tokiko Enplegu Plan honetan dauden egitasmo desberdinetatik, zeinetan ari zara lanean?

e-LeioaBidean du izena eta Leioako saltoki ezberdinetan web plataformak instalatzean datza, merkataritza elektronikoa sustatzeko, eta horrela, bezeroekiko harremana eta euren gogobetetzea hobetu erosten ari direnean, dendara joan beharrik gabe, eta tokiko banaketa-zerbitzua barne.

Zer egingo duzu hilabete hauetan?

e-LeioaBidean egitasmoan murgilduta egongo naiz. Informatika-garatzaila izanik, egitasmoan interesatuta dauden dendek web guneak garatuko ditut: merkataritza gustuaren arabera diseinatu, diseinu atsegin eta saltzeko den webgunearen itxura emanez, ordainketa plataformak ezarriz, eskaerak prozesatzekoak, e.a.

Informatikaren munduan zabilzan gazte legez, zer iritzi duzu merkataritza elektronikoz? Eta Leioako merkataritzaz?

Nik uste dut merkataritza elektronikoa gero eta garrantzitsuagoa dela saltoki baten garapenerako, horrela, bezero eta merkataritza arteko hesia apurtzen delako,



erosteko aukera emanez denda fisikora hurbildu beharrik gabe. Halaber, jende gehiagorengana heltzeko aukera dago eta produktibitatea hobetzen da horrela.

Leioan, merkataritza metodo hau ezartzeak salmentak eta bezero kopurua haztea ekarriko luke, baita herritarrentzako hobekuntza ere, etxetik atera gabe erosiz, erosoago eta arinago.

Zure enplegarritasuna nola uste duzu hobetuko dutela Behargintzan hartzen ari zaren esperientziak eta ezagutzek? Zer ekarpen jasotzen ari zara?

Egitasmo honetan lanean, web plataforma ezberdinen gaineko ezagutza zabala lortzen ari naiz, horiek administratu, garatu eta ezartzeko. Eta ezagutza horiekin eta esperientziarekin, nire ustez, enplegarritasuna hobetu egingo da, baloratzeko aspektuak direlako, batez ere, gazteon kasuan.

